AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4762

AGINDUA, 2012ko irailaren 21ekoa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegoko zenbait funtzionariori destinoak emateko dena. Funtzionario horiek maiatzaren 31ko Jus/1656/2010 Aginduaz deitutako hautaprobak gainditu zituzten.

Justizia Administrazioaren Zerbitzupeko Funtzionarioak Lanera Sartzeko, Lanpostuak Hornitzeko eta Lanpostuz Igotzeko Arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, 2012ko irailaren 21eko Aginduaren bidez Auzitegiko Medikuen Kidegoko karrerako funtzionario izendatu diren funtzionarioei eranskinean zerrendatzen diren organo judizial eta fiskaletan lantokiak esleitzea ebatzi du Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sail honek, honako hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa.– Agindu honen bidez lantokia esleitzen zaien Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioek hogei egun naturaleko epean hartu beharko dute jabetzan beren kargua, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, edo, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean batera argitaratu ezean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, aipatutako errege-dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren edo horrek eskuordetzen duen funtzionarioaren aurrean jabetuko dira lanpostuaz, Bizkaiko EATan.

Bigarrena.– Onartutako hautagaiei esleitu zaizkien lanpostuetan dauden bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetzen den egunean utziko dute lanpostua.

Hirugarrena.– Karrerako funtzionario diren hautagaiek lanpostuaz jabetzeko aktan aukeratu egin beharko dute, hala agintzen baita ondoko xedapenetan: Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Justizia Administrazioko langileari aplikatzekoa baita; Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 498. artikulua (abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak aldatu zuen 6/1985 Lege Organikoa).

Laugarrena.– Agindu honen bidez lantokia esleitzen zaien Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioek, kalifikazio-hurrenkera dela-eta lantokia derrigorrean esleitzen bazaie ere, agindu honen datatik zenbatzen hasita bi urte igaro arte ezin izango dute lekualdatze-lehiaketetan parte hartu. Bi urte horiek zenbatzeko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 529.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

Bosgarrena.– Auzitegiko Medikuen Kidegoko izangai sartu berriei esleitzen ez zaizkien plazak hutsik geratuko dira.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hila-beteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean. Bi kasuetan,

epeak agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 21a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

Hurrenkera-zk.	NAN:	Izen-abizenak	Esleitutako destinoa	Udalerria	Lurraldea	Lanpostua	Dotazioa
1	14589228Y	Lodeiro Lodeiro, María Sol	AMEEko Bizkaiko Zuzendariordetza	Bilbao	Bizkaia	3862	15
2	14582516X	Cárdenas Galán, José Luis	AMEEko Bizkaiko Zuzendariordetza	Bilbao	Bizkaia	3862	1